



Estibalitz González, Ahozko ondarearen koordinatzailea “Dokumentuen balioa kalkula ezin da”

Euskal Birusak martxan jarri duen proiektua hau koordinatzen dabil Estibalitz González 2007ko urtarriletik. Ermua, idatzita ez dagoen Ermua hori, inon agertzen ez den hori, ermuarren ahotan, garaiko protagonisten ahotik ezagutzea da egitasmoaren helburua. Dagoeneko 30 elkarrizketa baino gehiago jaso dira euskarri digitalean.

elkarrizketa

-Zer dela eta abiatu zuen Euskal Birusak ahozko ondarea biltzeko proiektua?

Drogetenitturrirako Maria Txindurriren bizitzaren gaineko artikulu bat prestatzen jarri nintzenean, berari grabatutako hainbat zinta analogiko entzuteari ekin eta nahiriko euskarri kaskarra zutela konturatu nintzen. Nik momentuan behar nuena egiteko balio zuten, baina dokumentu gisa, balio etnografiko gutxi zeukatela iritzi nion. Gai horretan eskarmentua duen Debabarreneko Badihardugu Euskara Elkartera jo nuen. Han euren lana ikusi eta guk ere egin ahal genuela konturatu nintzen. Horretarako behar genuen tresneria zein izan beharko litzatekeen definitzen joan nintzen eta apurka-apurka mundu horretara hurbiltzen. Proiektua landu nuen, Euskal Birusean proposatu eta aurrera egitea erabaki genuen.

-Proiektua gauzatzeko, azpiegituran inbertsioak egin dira?

Bai eta inbertsio gogorrak gainera: bideo-kamara digitala, mikrofonoak, mini-diska eta grabatzeko zintak erosi dira. Diru-laguntzak eskatuak ditugu Eusko Jaurlaritzan, Bizkaiko Foru Aldundian eta Ermuko Udalean. Euskarrietan egin dugun inbertsioak, dokumentuen kalitate onena



bermatzen du. Hor jaso ditugunak, gero ekoizteko eta editatzeko balio dute. Momentuz, elkarrizketak egiten inbertitu dugu denbora gehien.

-Ahozko ondarea zertan datza, zein da egitasmoaren muina?

Irudi eta ahots grabaketaren bitartez, herriko adineko hainbat pertsonen euren bizitzaren nondik norakoak batzea izango litzateke egitasmoaren xedea. Horrela, euren bizipenei esker, gerra aurreko eta haren osteko Ermuaren erradiografia bat izango genuke: sinismenak, ohiturak, eguneroko bizimodua, kale kantak, lanbide-

ak... Horiek guztiak ermuarraz, herri hizkeran jasota. Urte gutxitan aldaketa itzelak egon dira eta ez daude inon jasota. Horiek, kalitatezko euskarrian jasotzea da helburua.

-Zein da elkarrizketatuen profila? Zer hartzen da kontuan halako grabaketa bat egiterakoan?

Ermuan jaio zein bizi eta Ermuarekin zerikusia daukan edonor, gizon zein emakume da elkarrizketagarri. Argi dago arriskuan dagoen adin segmentu bat dagoela eta horiek direla hain justu Ermu ezberdinago bat erakusten diguten hizlari eta berriemaileak. Horregatik, horiengana jotzen dugu batez ere, jende edadetuagoarengana, baina noizean behin hain nagusiak ez diren eta interesgarriak diren pertsonengana ere joaten gara grabatzeko kontuakin. Profilaria dagokionez, nik

esango nuke edozeinek eta denak balio dutela gure honetarako.

-Kamara aurrean egiten dira elkarrizketak. Ba al dauka jendeak erreparorik?

Bai, eta sarritan hizlariak baino, etxekoek izaten dute erreparo gehiago. Zer esango ote duen, gauzak ahaztuko ote zaizkion... Beste alde batetik, elkarrizketatuek eurek ere, kamarari errespetotxo diote. Hasieran gehienek ez dutela ezer kontatzeko pentsatzen dute. Kamara aurrean eta mikrofonoa jarrita dutenean, ordea, hasi eta zintak irauten duen 85 minututan ez dute inolako arazorik izaten euren bizipenen inguruan jarduteko. Azken finean, 70 urtetik gorako pertsona batentzako, 85 minutuko zinta batean kontatu ahal diren gauzak ez dira ezer, bizitza batek horrek baino askoz gehiagorako ematen du!

-Egitasmoaren koordinatzailea...

“Urte gutxitan izandako aldaketak kalitatezko euskarrian jaso nahi ditugu”

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
estankoa

 torrekua z/g
 Tel/Faxa. 943 17 07 33
 fax publikoa

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

tzaille moduan ari zara. Zuk zeuk egiten dituzu elkarrizketak?

Martxotik uztailera bitartean EHU-ko ikasle bat, Ekhi Belar eibartarra izan dugu gurekin grabaketak egiten. Otsailean EHU-ra jo genuen bolondres bila eta Euskal Birusak hitzarmen bat sinatu zuen EHUrekin. Horrela, ikaslearen lan orduak Aukera Askeko Kreditu gisa hartu dira. Uztailean egin ziren azkeneko grabaketak.

-Zenbat elkarrizketa egin dira orain arte?

30etik gora eta egiten jarraitzeko asmoarekin. Aprobetxatu nahi nuke teartetxo hau jendeari esateko guztiengana ezin garenez heldu eta guztiak ez ditugunez ezagutzen, hizlariak proposatzeko, ez dagoela izen-abizenik jarrita (norbait proposatzen badigute, joango garela hari

elkarrizketa egitera). Horrez gain, norbaitek etxean kaseteko zinta analogikoan daukan ermuarren grabaketak ere digitalizatzeko prest gaudela, kalitatea galdu ez dezaten eta etorkizunerako herri artxibategi baten parte izan daitezen.

-Elkarrizketa egin eta ez da hor bukatzen lana...

Behin bideoan eta audioan grabatu eta gero, elkarrizketak DVD-an digitalizatzen dira. Ostean, fitxa batzuetan elkarrizketak kodifikatu egiten dira.

-Zelan kodifikatzen dira elkarrizketak?

Kodifikatzea, elkarrizketari fitxa batean zenbaki batzuk egokitzean datza: elkarrizketaren iraupena, nor den hizlaria, zeri buruz hitz egiten duen... Datu horiek guztiak ordenadorean sartzen dira eta artxibo bat sortzen da.

"Euskal Birusak egin arren, Ahozko ondarea herriarena da"

Horrela, asko errazten da geroako lana fitxan. Adibidez agertzen delako zeri buruz hitz egiten den elkarrizketa horretan edo zenbateko iraupena duen. Eskerrak Badiharduguk euren kodigo guztiak eskuzabaltasun osoz gure esku utzi dituela, eurek definitutako 300 kodigoetik gora; horrek itzelean erraztu digu lana.

-Nork egiten du kodifikazioa?

Momentuz ni ari naiz horretan eta ahal dudan denbora eskaintzen diot, denbora mugatua hala ere. Esaterako, Eibarren elkarrizketa egin aha-

la kodifikatu egiten zen, baina 8 orduz Udalak ordainduta pertsona bi egon ziren bere sasoian lan hori egiten.

-Egindako lan hori erabilgarri dago?

Momentuz Elexosten, Euskal Birusaren egoitzan dago, baina argi dago hori ez dela Euskal Birusarena. Proiektua Euskal Birusak egin du, baina jaso den ahozko ondarea herriarena da, beraz, interesa duen edonork erabil dezake, azken finean Ermuko artxibo etnografiko aberats bat da. Etorkizunean zer egingo? Pentsatuko da, fonoteka bat sor daiteke, DVD-ren bat argitaratu... Batek daki! Momentuz grabaketak egiten jarraitzea da asmoa, hori baita inportanteena: grabaketak eginda edukitzea.

-Proiektuaren zein alderdi nabarmenduko zenuke?

Jasotako lan honen balio etno-historiko-afektiboa neurtezina dela ermuarrentzat. Lehen egiten genuen lan berak, *Drogetenitturrira*ko elkarrizketa bat esaterako, orain balio handiagoa dauka, kalitatezko euskarrian jasota geratzen delako, lan horri prestigioa emanez. Era berean, zinta analogikoetan grabatuta egon diren 60 zinta inguru digitalizatu ditugu, gure artean ez dagoen jendearen ahotsak kalitatezko euskarri batean irauliz.

Alazne Aiestaran



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ernuva

DROGETENITTURRI
EUSKAL BIRUSA

943 17 93 50
Elexoste

